

GLL

gizarte-larrialdietarako laguntzak

Gizarte-larrialdietarako laguntzak unean uneko ordainketak dira (ez aldizkakoak), gizarte-bazterkeriako egoerei aurrea hartzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoari aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonentzat. **Funtsezko gastuak ordaintzen laguntzen dute, hala nola alokairua, argia, ura, altzariak, konponketak edo OHZ.** Gizarte Zerbitzuetako langileek balioetsitako lehen mailako beste premia batzuetarako ere erabil daitezke.



NOR?

Hauek dira zerbitzu hau eskura dezaketen pertsonak:

- Adin nagusiko pertsonak.
- Gutxienez sei hilabetez jarraian Euskadin errolatuta egon eta bertan bizi diren pertsonak.
- Ondare pertsonal edo familiar jakin bat gainditzen ez duten pertsonak.

NOLA ESKATZEN DA?

Zerbitzua eskatu aurretik, beharrezkoa da hitzordua izatea gizarte-langile batekin, zure premiei hobekien erantzuten dien zerbitzua den ala ez batera baloratzeko eta sartzeko baldintzak betetzen diren erabakitzeko. Hitzordua telefonoz edo aurrez aurre eska dezakezu gizarte-zerbitzuetan bertan edo Abiapuntun.

Aurreko aldietan GLLak lortu badituzu, zuzenean jo dezakezu Abiapuntura edo udalaren egoitza elektronikora.



ESKUDUNTZA

Udal-eskumena:
Ermuko Udala



943 179 161



Erdikokale 21,
48260 Ermua